


Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko azaroaren 15a / 517. zenbakia



ELKARRIZKETA

JON ARANZABAL

Behobia-Donostian bergarar onena

KZGUNEA: HASI DIRA GELA GERTATZEN/5 • SANTA ZEZILIA: BANDAREN KONTZERTUA, DOMEKAN/12

BERTSO SAIOA

EGILEORRI OMENALDIA

AZAROAK 22
ostirala • gaueko 10:30etan

NOVEDADES
ARETOAN

BERTSOLARIAN:

Sebastian Lizaso

Andoni Egaña

Imanol Lazkano

Joxe Agirre

Ainhoa Agirreazaldeggi

Jose Luis Gorrotxategi

Gai jartzailea: Egoitz Aizpuru

Sarrerak: Kortazar, Avenida, Pol-Pol, Jardun, Lazkano
Aurrez: 4,5 euro / Takilan: 6 euro / Bazkideek: 4,5 euro

Antolatzailea



Laguntzaileak

AVENIDA
TABERNA



BERGARAKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

ANDURI
LANDETxea



12... dozena bat urte
570... Ehundaka bazkide
1000... Mila egiteko!!!



Badakazu zeren... **IZAN BAZKIDE!**



Bazkideek ditue...

Beharrezkoa da Jardun?



Miren Leturia

Bai. Oinokian euskeria ez dago normalizata eta beraz bideak jorratzeko eta hortan laguntzeko, baita euskaldunon topagunea izateko ere.



Juan Martín Elxepuru

Ni sortzaileetarikoa bat naiz. Badira hamabi urte hogeitaz lagun elkartu ginela euskara bultzatzeko asmoz. Eta poliki poliki elkarteak sendotzen joan da, baina asko lortu badugu ere beti dago asko egiteko eta euskarak denon beharra dauka.



Amaia Ortiz De Urbina

Bai guztiz beharrezkoa! Oraindik ere euskaraz bizi ahal izateko urrats dexente eman beharra dago eta Jardunek horretan dihardu eta jardungo du Bergara guztiz euskaldundu arte.

**Badakazu ZER ESAN
IZAN BAZKIDE!!!**

JARDUN

Errotalde jauregia, Bergarako Kultura etxea.
Tel.: 943 76 36 61.


Izen-abizenak: Jaiotze data:
Helbidea: Herria:
Telefonoa: Lanbidea:
Kontu zenbakia (20digito)

Urtean ordainduko dudana kuota:

18 urtetik beherakoa Langabe, ikasle Lanean dihardut
 Borondatez diru gehiago eman nahi dut (jarri zenbat)

(Moztu eta bidali postaz)

ATREBENTZIAEZPADA/ Reala ligia irabazteko kapaza izango dala uste dozu?



JOSE MARI GARITANO
73 urte



JOSE GANTXEGI
83 urte



JUAN RAMON ARRIARAN
55 urte



MAITANE ANDUEZA
31 urte



VICTORIA MURILLO
60 urte



JOSE MANUEL SOLAUN
68 urte

Lehenengo lauren barruan gelditu leike, baiña irabaziz ez. Bartzelona, Valentzia, Real Madril... Diru asko dauken ekipo horrek aurre-rapide haundixagua daukela baina.

Irabazia nahiko neuke, baiña nahiko gaitza da. Ekipo haundixak dare diru asko daukelako, handik eta hemendik jokalarixak ekartzen dittuenak, eta horren aurrian gaitza da.


Ez dakit ba, zaletasun haundirik ez daukat. Baiña, bueno, ez dot uste irabaziko dauenik. Bigarren bueltia ikusi bihar, baiña UEFA-rako be ez dot uste sailkatuko danik Reala.

Idearik be ez daukat. Dana dala, horri ondiokan ez erantzutia hobe dala uste dot. Poliki-poliki ze egitten dauen ikustia hobe, ezer aurreratzen hasi baiño lehenago.

Jun zan urtekuakin alde-ratuta oso ondo doia, baiña ikusteko dago. Dana dala, nik uste dot aukerak badauzkala. Neri, behintzat, Realak Ligia irabazia gustauko litzatake.

Goixan ibilliko da, baiña ez dot uste irabaziko dauenik. Gaitza da, beste ekipo batzuk gogorrak dielako. Diru gehiago manejatzen dabek ekipoak. Irabazia gustauko litzatake.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK BATEAN FALTAN, BESTEAN SOBERAN Goenkaletik Artekalerara jaisteko kalekaren gainean kexatzeko deitu digu herritar batek. Haren esanetan, autoz jaitsi nahi izanez gero, autoaren muturra asko atera behar da. Hala, ispilu bat jartzea komeniko litzatekeela gehitu du. 50 metro aurrerago, Burdiñateko semaforoaren ondoan bat badagoela gaineratu du, alferrikakoa, haren ustez. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /6

KIROLAK /11

KULTURA /12

Uned-en kurtso hasiera

Uned zentroak ikasturte hasiera ekitaldia egingo du gaur, 19:00etan, udaletxeko Aretot Nagusian.

Pilota jaialdia zapatuan

Lau terdiko txapelketan Unanue eta Las III.a aurrez aurre izango dira zapatuan Bergaran.

Ispilu antzerki taldea bihar

Donostiako HHiko taldeak Jacinto Benaventeren *Señora Ama* lana jokatu du, 19:30ean, Zabalotegin.

ASTEKODATUA

21

KZGUNEAN JARRIKO DUTEN ORDENAGAILU KOPURUA

Irizar jauregian bi asteren buruan zabalduko duten KZGunean 21 ordenagailu jarriko dituzte, bi gunetan banatuta: ikastaroak emateko gunean, 12; erabilerak libreko gunean, bederatzia.

BESTEKEESANA

“Tortura ebidentziarik ez dago inkomunikazio sistema horretarako diseinatua dagoelako. Soilik sistema horretan zerbait ‘gaizki’ atera denean (Justizia saileko forenseak ezin izan duenean isilik mantendu ikusitakoa edo torturatuaren seinaleek inkomunikazio epealdia baino gehiago iraun dutenean) egon izan dira frogak. (...) Esan zein argumentazioaren gainean azaldu daitekeen atxilotua bost egunetan zehar ezin izatea haren senideekin, abokatuarekin, konfiantzazko medikuarekin harremanetan jarri, ez bada tortura eta tratu txarrekin egindako galdeketa estaltzeko duen kontariak, NBEko Giza Eskubideen Erakundeak... ez diote azalpenik aurkitzen. Guk ere ez. IÑIGO ELKORO / Torturaren aurkako taldeko kidea ‘Gara’/02-11-07

BERAIEKDIÑO/ Edurne Azuara



Puntazoa

Duela denbora bat, Bilboko kafetegi baten nengoela, nahigabe (bueno, nahita) nire ondoan zegoen hirukote baten berriketa entzun nuen. Lagun hauetako batek guztia utzi eta atzerrira, Argentinara, hain zuzen ere, joateko erabakia hartuta zuela esan zuen. Bere lagunei erokeria iruditu zitzaion. Lan finkoa, familia, lagunak, eta abar edukita, zertarako joan nahi zuen Argentinara? Zer egin behar zuen berak han, Argentinan, bakarrik? Ni, disimulu handirik gabe, adi-adi geratu nintzen erantzunaren zain, nik ere jakin nahi nuen zerk bultzatu zuen gaztea erabaki hori hartzera. Baina bere lagunak baita ni ere “ez dakit” triste batekin konformatu behar izan ginen; “puntazoa” eman diola eta badoala. “Puntazoa” eman diola dio! Baina zer da hori, zerk sortzen du, kutsagarria al da?

Geroago konturatu naiz nere inguruko pertsona

batzuek ere izan dituztela “puntazoak”, eta geroago konturatu naiz nik neuk ere izan dudala baten bat! Orain dela hilabete Bilbora etorri nintzen bizitzera (etxetik gertu beti ere...) eta oraindik ez dakit oso ondo zergatik. Dakidan bakarra da aldaketa baten beharra sentitzen nuela. Batzutan denbora besterik gabe pasatzen dela konturatzen zara eta, nik, behintzat, ez dut hori onartu nahi. Suposatzen dut kafetegiko lagun honek ere horrelako zer edo zer sentitu zuela. Suposatzen dut baita ere, gazte hori orain Argentinan egongo dela (hori pentsatu nahi dut, behintzat) eta auskalo hartu duen erabakia egokiena izan den ala ez, ondo ala ez hain ondo dagoen...!

Bere ametsak Argentinan (edo lur azpian!) daudela uste, eta haien bila joateko “puntazoa” duen edonori nork dei diezaioke ero? Ez al dago eroago bere ametsak betetzen saiatzen ez dena?

“Bere ametsak Argentinan daudela uste, eta bila joateko puntazoa duenari nork dei diezaioke ero?”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereizbar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zehatzak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 15**
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- ZAPATUA, 16**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- DOMEKA, 17**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 18**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
- MARTITZENA, 19**
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 20**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- EGUENA, 21**
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

- Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
- Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 76 53 40
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaitzak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK

- Taxiak 943 76 19 50

UDALA

- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea. Bergara. 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratu elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | San Pedro | Labegaraieta |
|--------------------------------|--------------------------------|
| Domekak: | Domekak: 11:00. |
| 09:30, 12:30. | San Lorenzo |
| Zapatuak eta lanegunak: 19:00. | Zapatuak: 20:00. |
| Sierbak | Angiozar |
| Lanegunak: 19:15. | Domekak: 11:30. |
| Zapatuak: 19:00. | Moja |
| Domekak: 11:30, 13:00. | Zaharrak |
| Osintxu | Lanegunak: 9:00. |
| Domekak: 12:30. | Zapatuak: 11:00. |
| Zapatuak: 19:00. | Mizpirualde |
| Elosu | Lanegunak: 11:45. |
| Domekak: 10:30. | Zapatuak: 17:30. |
| Ubera | Antzuola |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 09:00, 11:30. |
| San Juan | Zapatuak eta lanegunak: 19:30. |
| Domekak: 11:00. | Uzarraga |
| Elorregi | Domekak: 10:00. |
| Domekak: 10:30. | |

URTE-MEZAK

- Santa Marina**
Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

1934AN JAIO TAKOAK

1934an jaio tukoen bazkaria (1955eko kintoak) hilaren 23an Torrekua jatetxean, 14:45ean. Aurretik, 14:00etan, taldeko argazkia aterako dute. Txartelak, Torrekuan bertan.

1938AN JAIO TAKOAK

1938an jaio tukoen bazkaria hilaren 23an Pertxan. Izenematea: 943 76 15 36 (Mariasun Gardoki), 943 76 18 64 (Migel Lazkano), 943 76 42 08 (Juan Alkorta) edo 943 76 35 17 (Mari Karmen Leturia).

1946AN JAIO TAKOAK

1946an jaio tukoen afaria hilaren 23an Tartufo jatetxean. Izenematea: Tartufon (943 76 35 51).

1945EAN JAIO TAKOAK

1945ean jaio tukoen afaria hilaren 23an Azpeitxi jatetxean. Izenematea (30 euro), Kutxan irekitako kontuan, hilaren 17ra arte.

1933AN JAIO TAKOAK

1933an jaio tukoen bazkaria hilaren 24an Torrekuan, 14:30ean. Aurretik meza, Sierbetan, 13:00etan. Izenematea (6 euroko depositua), Torrekuan edo Intxortan.

1944AN JAIO TAKOAK

1944an jaio tukoen afaria azaroaren 30ean Azpeitxi jatetxean, 21:00etan. Aurretik meza izango da, San Pedron, 19:00etan. Izenematea 943 76 13 61 (Mari Karmen Garitano) edo 943 76 23 70 (Sánchez ile apaindegia) telefonoetan.

IPINTZA INSTITUTUA

LOGSE Batxilergoko irakasgaiak gainditu barik dituzten eta matrikulatuta ez egon arren titulazioa lortu nahi duten ikasleek matrikula librea egin dezakete. Matrikula egiteko epea zabalik dago hilaren 29ra arte. Argibideak: 943 76 31 42.

URBANOEN ORDUTEGIA

- San Lorenzo / San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Toransa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soralue aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraleta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak**
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN

Entrenatzaile aldaketa futbol talde nagusian

Bergara KEko zuzendaritzak Jesus Izagirre preferenteko futbol taldeko entrenatzailea kargutik kendu zuen 1992ko azaroan, emaitza txarrak zirela-eta. Lehenbiziko bederatzi partiduetan zazpi puntu besterik ez zuen lortu taldeak. Jose Luis Beitiak ordezkatu zuen Izagirre.



BERTAKO BERBAK / Juan Martin Elexpuru

"Ugarixua"



Igela.

—Probaituzuz ugarixo-ankak? Ba oso gozuak ei die.

ASTEKOFILMAK

'UN FINAL MADE IN HOLLYWOOD'

ZUZENDARIA: WOODY ALLEN. AKTOREAK: WOODY ALLEN, TEA LEONI.

'MOMO, DENBORAREN ATZETIK'

ZUZENDARIA: ENZO D'ALÒ.

'PIZZA, BIRRA, FASO'

ZUZENDARIA: ADRIAN CAETANO ETA BUENOS AIRESNO STAGNARO. AKTOREAK: HÉCTOR ANGELADA, JORGE SESÁN, PAMELA JORDAN.

HARIA. Hollywooden baztertutako zuzendari bati film bat aginduko diote, haren emazte ohiari esker. Tentsioaren eraginez gauzak erabat okertuko zaizkio...

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean (ikuslearen eguna).

PUNUAZIOA: ● ● ● ● ●

HARIA. Michael Ende idazleak umeei zuzendutako liburuan oinarritutako filma. Momo umezurtz geratu den neskatila da, eta bizi den antzoki zaharlean lagun asko egin ditu, Beppo kalegarbitzailea edo Gigi narratzailea tartean. Euskarazko bertsiotan.

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan eta domekan, 17:00etan.

PUNUAZIOA: ● ● ● ● ●

HARIA. 1997ko Mar del Platako Jaialdian Fipresci saria jaso zuen film argentinar honek. Buenos Airesen bizi dira *El Cordobés* eta haren bikotekidea, Sandra, eta lapurretei esker egiten dute aurrera. Haurdun geratu ostean, lanean hasi eta beste norabait josteko gogoak dauka Sandra-k...

TOKIA ETA ORDUA. Zinekluba. Eguenean, azaroaren 21ean, 20:00etan.

PUNUAZIOA: ● ● ● ● ●

BERGARA MARGOAK



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxes: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

HIRIGINTZA/ Egubakoitzean, hilaren 22an, irekiko dute, seguruenik, eta bi gune bereizi izango ditu: bata, ikastaroetarako; bestea, erabilera librekoa

Hasi dira KZGunea jartzeko Irizar jauregiaren bigarren solairua egokitzen

MONIKA BELASTEGI


Joan den astean hasi ziren KZGunea jartzeko gela egokitzen. Irizar jauregiko bigarren solairuan jarriko dute, eta, Udaleko iturrien esanetan, li-tekeena da datorren egubakoitzean zabaltzea. Gelak bi gune izango ditu: ikastaroetarako eta erabilera liberako.

Interneten erabilera orokorra bultzatzea du helburu KZGuneak. Iaz, abenduan, hasi ziren hedatzen Euskal Autonomia Erkidegoan, eta Eusko Jaurlaritzak abian jarritako programa baten zati dira: Euskadi Informazioaren Gizartean programaren zati, hain justu ere. Programa horren helburua da EAEko biztanleriari teknologia berriekin trebatzen laguntzea, eta horretarako bi oinarri ditu: lehenengoa *Konekta zaitz* programa izan zen, informatika-ekipoak erosteko dirulaguntza. Eta bigarrena KZGuneak dira, Interneteko prestakuntza eta erabilera eskuratzeko doako zentroak.

Interneteko prestakuntza eta erabilera bultzatzeko ahalegin horretan, bereziki hiru multzori zuzendu nahi izan dizkio Jaurlaritzak KZGuneok, teknologia berrietatik urrun dauden hiru multzori, hain justu ere: etxeko-andreei, 65 urtetik gorakoak eta iraupen luzeak langabeei. Hala eta guztiz ere, 16 urtetik gorako herritar guztiak izango dute erabiltzeko aukera.

BERGARAKO UDALAK PROIEKTUAREKIN BAT EGIN DU

KZGuneen ardura Eusko Jaurlaritzak duen arren, proiektuarekin bat egiten duten udalek -Bergarakoak barne- gunea jar-



LEIRE KORTABARRIA

Erabilera libreko gelan 9 ordenagailu izango dira, eta erabilera doakoa izango da. Argazkian, Arrasateko KZGunea.

tzeko egoitza egokia eskaintzeko konpromisoa hartu dute; baita gela atontzeko altzariak jartzekoa ere. Hori horrela, Bergarako Udalak Irizar jauregiko bigarren solairuko bi gune bereiziko gela

bat utzi dio Eusko Jaurlaritzari KZGunea jartzeko.

Dagoeneko gune horiek egokitzen ere hasi dira. Joan den astean ekin zioten, hain justu ere, eta, Udaleko iturrien esanetan, dato-

rren egubakoitzean, hilaren 22an, zabalduko dute, seguruenik; izan ere, "guneek obra askorik ez dute behar, baina oraindik ere detale txiki batzuk lotzeko ditu Eusko Jaurlaritzak".

KZGUNEAREN ORDUTEGIA ETA EGUTEGIA

Eusko Jaurlaritzak KZGuneendako egutegi eta ordutegi orokorrak ditu: astelehenetik egubakoitzera, 08:00etatik 12:30era eta 14:30etik 20:00etara. Hala eta guztiz ere, ordutegi hori erabiltzailen eskarira moldatzeko aukera dagoela aurreratu dute Udaleko iturriek: "Eusko Jaurlaritzako arduradunen esanetan, herriaren arabera herritarren eskariak ezberdinak direla frogatu ahal izan dute. Horregatik, gunea zabaldu eta eskaria zein den ikusita, bai gunearen bai ikastaroen ordutegiak ere zehaztuko dira.

Interneteko prestakuntza eta erabilera eskuratzeko doako zentroa da

Bi gune bereizi izango ditu: bata, ikastaroak emateko; bestea, erabilera librekoa izango da

Ikastaroen gunean 12 ordenagailu egongo dira eta erabilera librekoan, bederatz

AHTren laginen aurkako ibilaldia

MONIKA BELASTEGI

Joan den domekan, AHT Gelditu! Elkarlana taldeko kideek eta hainbat herritarrek, tartean gasetxeko kideek, ibilaldia egin zuten San Migel mendi ostera. Ibilaldiaren helburua zen Etxague baserrien inguruan egiten ari diren laginak ikustea. AHTren ibilbidea egin aurretik lurzoruaren profila, izaera eta ezaugarriak aztertzeko hondeaketak egiten ari dira, eta hori ziurtatzera hurreratu ziren hara. Hondeaketa edo lagin bat horiez Ingenieria de Suelos y

Explotacion de Recursos SA enpresak eta Geocontrol SA enpresak aldi baterako eratu duten taldea arduratzen da.

SAKONERA HANDIKO HIRU HONDEAKETA

Ibilaldiko kideak ibili ziren inguruan bi lagin egiten ari dira egunotan. Gainera, sakonera handikoak direnez, badirudi hilabete inguru emango dutela hondeaketa horiek egiten: bata 230 metro sakon da, eta bestea, berriz, 360 metro. Bi lagin horiez gainera, 190 metro sakon den beste lagin bat egiten ere amaitu dute.



MILA ELORTZA

Irudian, ibilaldian parte hartu zuten kideetako batzuk, hondeaketa egiteko erabiltzen duten makinaren ondoan.



MONIKA BELASTEGI

Besteak beste, lorategiak, espaloiak eta eskolako fatxada konpontzea eskatu diete auzotarrek Udalari.

HIRIGINTZA/ Auzotarren iradokizunak hartuko dituzte kontuan konponketak egiteko

Martoko konpontzen hasiko da Udala urtearen barruan

MONIKA BELASTEGI

Udaleko iturriek azaldu dutenez, Martoko auzoa konpontzen hasiko dira urte bukaera aldera. Lanak egiteko baldintzak prestatzen ari dira dagoeneko. Konponketak egiteko, auzotarrek egindako eskariak hartuko dituzte kontuan.

Auzoaren egoera kaskarra dela eta, joan den urtean, ekainean, batzarra egin zuten Martoko auzoko bizilagunek. Batzarraren hel-

burua zen auzoan konpontzeko beharra zuten guneen zerrenda egitea. Auzotarren esanetan, auzoa guztiz utzita egon da urtean, eta zerrenda horrekin eta 200 auzotar ingururen sinadurekin Udalera jo zuten. "Gure asmoa zen Udaleko ordezkariari esatea zein arazo ikusten genituen auzoan, gero eurek irtenbideak emateko". Zerrenda horren barruan honako konponketen beharra ikusi zuten auzotarrek, besteak beste: erreka aldeko hainbat guntan segurtasun hesia jartzea; lorategiak konpontzea, espaloiak kon-

póntzea, garbiketa hobeto atenditzea, zakarrontzi gehiago jartzea eta eskolen fatxada konpontzen bukatzea.

URTE AMAIERAN KONPONTZEN HASI


Udaleko iturriek esan dutenez, auzotarren iradokizun horiek guztiak kontuan hartu dituzte, eta konponketa horien arabera baldintza plegua prestatzen ari dira obrak esleitzeko. Bestalde, diru partida bat ere lan horiei izendatuta dagoela aurreratu dute, eta lanok urte bukaera aldera hasiko direla ere esan dute.

LABUR

Hemezortzi ume eta hogeit hamar heldu ari dira Jardunek antolatutako bertso eskolatan

Jardun Euskara Elkarteak antolatutako ume eta helduendako bertso eskolatan jende ugari eman du izena. Umeen bertso eskolako hamazortzi lagunek eman dute izena, eta eskolak datorren astean edo hurrengoan hasiko dira; izan ere, oraindik zehaztu barik dago umeei gehien komeni zaien ordutegia. Helduen kasuan, hogeit hamar lagunek eman dute izena, eta duela bi aste ekin zieten eskolei.

Helduen zein haurren bertso eskolak Arrizuri jauregian dira, eta irakasle lanetan bi bertsolari ari dira: Ainhoa Agirreazaldegia eta Enaitz Alustiza.



EHNA egiteko bulegoa abian da

Udalbiltzak Kruz Gallastegi kaleko zazpigarren zenbakian ireki duen bulegoan dagoeneko buru-belarri ari dira ENHaren tramitazioa egiten. Astelehenerdik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik, eta zapatuetan, 11:00etatik 13:00etara. Udaleko hainbat zinegotzi daude bulegoan, txandaka, eta eurek egiten dituzte tramitazioak. EHNA eskuratzeko hiru gauza eraman behar dira bulegora: hiru argazki, Bergarako errolda agiria eta Euskadiko Kutxan 12 euro sartu ondoren ematen duten agiria.

UNEDek, ikasturte hasierako ekitaldia

MONIKA BELASTEGI

Gaur, egubakoitza, 19:00etan egingo du UNEDek ikasturte hasierako ekitaldi akademikoa. Udaletxeko areto nagusian izango da, eta UNEDeko eta Bergarako Udaleko ordezkariak izango dira.

Ekitaldiaren aurkezpena Vicente Huizi ikastetxeko idazkariak egingo du. Horren ondoren, Victoriano Gallastegi alkateak agurra egingo du, eta Jesus Arpal UNEDeko zuzendari ohiak, berriz, berbaldia. Gai hau jorratuko du: *Ibiltzeko lekuak: tokiko kulturaren arazoak.*

Horren ondoren, Juan Jose Álvarez UNEDeko zuzendariak ikasturte berriaren txostena irakurriko du. Bestalde, Gipuzkoako diputatu nagusi eta UNEDeko Patronatuko presidente Roman Sudupek ere hitz batzuk egingo ditu, eta, azkenik, Joaquin Summers-ek, UNEDeko Nazioarteko Harremanetarako errektoreordeak, hasiera emango dio 2002-2003 ikasturteari.

Urtero bezala, ikasketak amaitu dituztenei diplomak banatuko dizkiete, eta UNEDek antolatutako I. Pintura Lehiaketako irabazleei sariak.



UNEDeko 2002-03 ikasturte hasierako ekitaldia udaletxeko areto nagusian izango da, 19:00etan.



MONIKA BELASTEGI

Bonbuluko bidegurutzan seinale berriak jarri dituzten arren, oraindik ez dute argi gehiago jarri, nahiz eta Udalak hala eskatu.

ERREPIDEAK/ Udalak igorritako hainbat hobekuntza aintzat hartuz egin du aldaketa

Diputazioak aldatu egin ditu saihebidetako seinale batzuk

MONIKA BELASTEGI

Ekialdeko saihebidetako hobeto aprobetxatzeko eta, horren ondorioz, San Antonioko bidegurutzetako ibilgailuz arintzeko, hainbat hobekuntza proposatu zizkion, urri aldera, Udalak Foru Aldundiari. Iradokizunak aintzat hartu eta bete ere egin ditu Aldundiak.

Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatutako hobekuntza horiek Udaltzaingoak egindako txosten baten oinarritzen dira. Txosten horrek ekialdeko saihebidetako egindako hainbat hobekuntza jasotzen zituen, eta gehienak zirkulazio seinaleekin lotutakoak ziren. Helburua ere bera zuten: San Antonioko bidegurutzetako ibilgailuz arintzea, eta ekialdeko saihebidetako aprobetxamendu hobea.

Horretarako, Zumarraga, Antzuola eta Arrasatera joateko San Antoniotik igaró beharra dagoela adierazten zuten seinale zaharrak kentzea proposatu zion Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta, horien ordez, seinale berriak jartzea, betiere, aipatutako herrietara joateko saihebidetako berria hartu behar dela adierazteko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak aintzat hartu du Udalak urri erdi aldera egindako proposamen

*Bonbulun,
saihebidetako irteeran,
abiadura txikitzeko
bandak jartzea ere
onartu du*

hori, eta dagoeneko kendu ditu seinale zaharrak, baita berriak jarri ere.

SEGURTASUNA BERMATZEKO HOBEKUNTZAK

Udalak egindako beste proposamenetako bi segurtasunari dagozkie: Bonbuluko bidegurutzetako kasuan, saihebidetik irten behar diren ibilgailuek abiadura murrizteko bandak jartzea, bate-tik, eta proposamen hori ere onartu du Diputazioak. Bestetik, bidegurutzetako berean argi gehiago jartzea. Hori, hala ere, ez dute oraindik egin.

Oraindik erantzunik jaso ez duen beste proposamenetako bat 13 tonatik gorako ibilgailuei dagozkie: San Antoniotik igarotzeko debekua dutela adierazten duen seinaleak jartzea ere eskatu zion Bergarako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Auzotarrak, pozik Angiozarren eraikitzen hasitako etxeekin

MONIKA BELASTEGI

Bi familiarendako etxebizitzak eraikitzen hasi dira Angiozarren; hiru, hain justu ere. Joan den urriaren 28an hasi ziren eraikitzen, eta bertara bizi izatera joango diren sei familiek eraturako kooperatiba bidez atera dituzte etxeak aurrera.

Etxebizitzok eskolatik hurbil eraikiko dituzte, eta Mila Elortza Angiozarko auzo-alkateak esan duenez, hogeitau urte inguru daratzen Angiozarren etxebizitzak berriak egiteko proiektuarekin.

Angiozarko Batzarraren baitan mamitu zen duela 20 urte etxebizitzak berriak egiteko asmoa. Helburua zen herriko gazteei auzoan bizi izaten geratzeko aukera eskaintzea. Hala ere, "hainbat arazo direla medio atzeratzen joan zen kontua, gaur arte", azaldu du Mila Elortzak.

Elortzak gehitu du auzoko jendea pozik dagoela etxe berriekin: "Sei familia gazte etorriko dira, batzuk umeekin edo izateko aukerarekin; eta horrek eskolaren jarraipena ziurtatu egiten du, besteak beste".



MILA ELORTZA

Angiozar sarreran, eskolatik oso hurbil ari dira eraikitzen etxebizitzak.

LABUR

Odol ateratzea egingo dute datorren eguaztenean Seminarioko egoitzan

Datorren eguaztenean, azaroaren 20an, odol ateratzea egingo dute Odol Emaileen Elkarteak Seminarioan duen egoitzan. Odol ateratzeak 18:30ean egingo dituzte.

Eguazteneko hori hilabeteko azken odol ateratzea izango da. Hurrengo biak abenduan egingo dituzte: lehenengoa abenduaren 4an, eta bigarrena, berriz, abenduaren 18an, hain zuzen ere. Ohi bezala, 18:30ean egingo dituzte odol ateratzeok, Seminarioko lokalean.

Suradesa zerbitzuak aldatu egin du herritarrendako harrera ordua

Udalak aditzera eman duenez, Eusko Jaurlaritzak etxebizitzak erosi edo konpontzeko ematen dirulaguntzen berri zabaltzeaz arduratzen den Suradesaren bulegoak aldatu egin du ordutegia. Ordutegi berria honakoa izango da: eguaztentean, 10:30etik 12:30era.



- Ordenadoreak neurriara
- Zerbitzu teknikoak
- Informatika-sareak

Artekalea 11, behea BERGARA
Tel./Faxa: 943 76 30 57 • 609 15 01 69
E-maila: idelta@teleline.es

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean
erreforma
Pintura zerbitzu osoa
Moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59
Bergara

Arin jatetxea

BERRIZ ZABALIK

Eguneko menua • Menu berezia
Karta • Kintadak

Kalebarren 7 ANTZUOLA 943 78 71 63

MARIAREN LAGUNDIKO IKASLEAK ARAGOIN

Mariaren Lagundia Ikastolako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasle talde bat Aragoi izan da astebetez, urriaren 22tik 28ra bitartean, hain zuzen ere. Eskola ibiltari izeneko programari esker joan dira hara, eta Madrilgo eta Malagako ikasleekin elkartu dira. Bergaratik 15 ikasle joan ziren, Mari Angeles Olaizola irakaslearen laguntzarekin, eta primeran ibili dira. Hala esan digute, behintzat. Lagunak egiteaz gainera, toki ederrak ikusi dituzte: besteak beste, Zaragozako El Pilar basilikan izan dira, Huesca ondoko Loarreko gazteluan, Ordesako parke nazionalean, Teruel esre bisitatu zuten... Egun batzuetan eskolak alde batera lagata, ondo baino hobeto pasatu dute lagunartean. Argazkian, Ordesako parkean ikus dezakezue Mariaren Lagundiko ikasle taldea. Esan bezala, primeran ibili dira, eta orain, lagunei ikusitakoak kontatzeko aukera izango dute. Eta helduko zaie horrelako beste irteeraren bat egiteko ordua. Bien bitartean, gogor ikasteari ekin behar diote orain...



SAN JOXEPEKOEK AFARIA EDERRA

Kultur Hamabostaldiaren amaiera ospatzeko, San Joxepeko lagunek afaria egin zuten egubakoitzean Pertxa elkartearen. Aurretik, Hamabostaldiaren balorazioa egiteko batzarra izan zuten. Antolatzaileak erabat pozik azaldu dira Hamabostaldiak izan duen harrerarekin. Egubakoitzean, 30 lagun izan ziren Pertxa elkartearen afaltzen. Gogor lan egin eta gero, bazen ordua atsedean hartu eta lagunartean Hamabostaldian izandako ekitaldiak komentatzeko. Eta mahaiaren bueltan bada, hobeto!



Herran

ELEKTRIKAKO TRESNAK


Soinua, telebista, hozgailuak...

Matxiategi, 3
943 76 12 22


SUKALDEKO ALTZARIAK

Vegasa banatzaile ofiziala

Matxiategi, 4
943 76 37 53



MINGAINARITIRAKA



Igone
López

ONCEko saltzailea

Gutxituendako hainbat lantegitan lanean izan ondoren, duela lau urtetik ONCEko saltzailea dugu Igone (35 urte). Antzuolan eta Bergaran ibiltzen da kupoia saltzen, eta gurera sari potoloren bat ekartzeko ilusioa dauka.

Noiz saltzen dituzu kupoi gehien?

Egubakoitzean, Kupoitzarra izaten delako. Urtean barrena, berriz, Gabonetan saltzen dut gehien.

Emakumeek ala gizonen erosten dute gehiago?

Antzera. Hori bai, pertsona helduek erosten dute, batik bat; 40 urtetik gorakoek.

Badaukazu saltzeko sekreturik?

Ez; jendea ondo atenditu, besterik ez.

Laneko gauzarik onena? Eta txarrena?

Onena aire librean lan egitea eta jendearekin tratua izatea. Txarrena, berriz, neguan euria eta hotza jasan behar izatea.

Superstiziosoa zara?

Ez, ez dut horretan sinisten.

Gabonetako loterian jokatzeko duzu?

Bai. Milioiak irabazteko? Etxea ordaindu eta kostaldean beste etxe bat erosiko nuke, noizean behin hara joateko.

Zaletasunik badaukazu?

Margotzea, irakurtzea, animaliak...

Etxean badaukazu animaliarik?

Bai, katakume bat. Hilabete eskas dauka, eta oraindik ez diot izenik jarri. Horretan pentsatu beharko dut...

Aste bukaerarako plan on bat?

Lagunekin irten, norabait afaltzera joan... Telebista ere asko gustatzen zait, batez ere, dokumentalak eta filmak ikusteko.

Lagunengan gehien miresten duzuna?

Egiazaletasuna, lagun onak izatea.

Zerk jartzen zaitu sutan?

Gauzak okertzen zaizkidanean, oso jenio txarra izaten dut.

Film bat? Emakumezko eta gizonen aktore bana?

Titanic asko gustatu zitzaidan. Aktoreak, Julia Roberts eta Denzel Washington.

Zer egingo du Realak aurten?

Oso ondo ikusten dut, Liga irabazteko kapaz.

Nora egingo zenuke bidaiara bat?

Maurizio uharteetara.

EDU MENDIBIL

NIREBIDAIAHURA / Eider Arzelus

Europa / 2002ko abuztuan

Europako hainbat herrialde bisitatzeko asmoz, Interrail txartela atera eta trenez Europa aldera joatea erabaki genuen koadrilako lau lagunek. Merke bidaiatzeko eta jendea ezagutzeko ere oso aproposa da tren. Atentzioa eman zigun zenbat gaztek bidaiatzen zuten trenez; asko eta asko bakarrik, gainera. Mundu guztiko jendea topatzen da horrelakoetan. Hasieran gure asmoa zen gauz bidaiatu eta egunez tokiak ikustea, baina Krakoviara bidean lapurtu egin ziguten, eta handik aurrera aterpetxeetan igarotzen genituen gauak. Trenak ere asko esaten du herrialde bakoitzaren gainean: garapen txikiagoko herrialdeetan trenak kaskarragoak ziren, eta arrisku sentazioa handiagoa zen.

Zumarragan ekin genion bidaiari, eta nagusiki hiriburuak bisitatu genituen, herri txikiak iristeko baino erraztasun handiagoa dagoelako, logikoa denez. Europako hiri askotan izan ginen: Parisen, Berlinen, Krakovian, Auschwitzen, Pragan, Budapesten, Vienan, Salzburgon, Innsbrucken, eta abar. Guztira, 24 egun egin genituen, eta azkenerako nahiko nekatuta geunden; izan ere, bizkar gainean, motxilan, batez beste 15 kilo generamatzan. Baina oso esperientzia ona izan da. Beharbada, hainbeste toki



“Europako hiri askotan izan ginen. Hogeita lau egun egin genituen trenean bidaiatzen”

“Ikusitako tokietatik, Pragarekin eta Berlingo Harresiarekin geratuko nintzateke”

abentura kirola egiteko tokiak; guk arroila-jaiatsiera egin genuen. Tirola ikusgarria da oso, eta Grossglockner (Austriako mendirik altuena: 3.798 m) ondoan dagoen glaziarra zoragarria da.

EDU MENDIBIL



Eiderrek eta haren lagunek Viena bizikleta gainean ezagutzeko aukera izan zuten.

AZKEN JOERA GUZTIAK

LASTER ZABALIK
ZEHARO BERRITUTA

Irala 5 BERGARA 943 76 24 88



ELKARRIZKETA

JON ARANZABAL/LEHEN BERGARARRA BEHOBIA-DONOSTIAN

“Motibazio berezia izaten dut Behobiarako; giro aparta egoten da”

EDU MENDIBIL

Domekan jokatuako Behobia-Donostia proban herriko onena izan genuen Jon Aranzabal (36 urte). Trintxerpe taldeko korrikalaria 93. postuan sailkatu zen, ordubete, 11 minutu eta 30 segundoko denborarekin.

Zure marka ez hobetu arren, berriro herriko onena izan zara Behobia-Donostian.

Argi neukan marka hobetzea [1:08:16, 1999an lortutakoa] ia ezinezko nuela. Aurten, izan berri dugun umea dela-eta, ez dut nahi beste entrenatzerik izan. Bihurritu bat ere izan nuen orkatilan, proba baino aste batzuk lehenago, eta irteeran banekien helmugara heltzeko sufritu egingo nuela. Eta halaxe izan zen. Dena ematera irten, eta azken zatian nahiko larri ibili nintzen; karranpak ere izan nituen. Argi dago ondo entrenatuta joanez gero sentazioak bestelakoak direla.

Proba berezia da zuretako?

Bai, aurten, hamabigarren aldiz egin dut. Giro aparta egoten da, eta beti ahalegintzen naiz proba ondo prestatzen. Motibazioa berezia izaten da.

Noiz hasten zara lasterketa gertatzen?

Urte osoan ibiltzen naiz korrika. Emaztea eta biok Donostiako Trintxerpe taldean ari gara, eta lasterketa ugari egiten ditugu denboraldian. Urtero 3.000 kilometro inguru egiten ditut, nahiz eta aurten 2.700 izan diren.


Donostiako Maratoia egiteko asmorik bai?

Ez. Orain atsedean hartzeko gogoa daukat. Maratoia gertatzeak denbora exijitzen du, eta badaukat gogoa ganoraz prestatzeko. Datorren urtean, agian.

Zein distantzian moldatzen zara ondoen?

Nire ezaugarriengatik, proba bizkorrak dira niretako proposenak. 800 metroko proban, esate baterako, nire onena eman nezake, baina nire helburua ez da pistan ibiltzea, aspergarria egiten zait-eta. Proba luzeagoetan gusturago ibiltzen naiz, eta 8-10 kilometro bitarteko probak atsegin ditut. Maratoiak ere asko erakartzen nau.

Ziklismoan eta triatloian ere ibilitakoa zara.



E.M.

“Maratoiak asko erakartzen nau, eta etorkizunean proba hori ganoraz prestatu nahi nuke”

Bai, duela urte batzuk, amaurretan korritu ondoren, Bergarako lagun batzuk ibili ginen triatloian. Oso kirol erakargarria da, baina denbora luzea eskatzen du. Bizikletan ibiltzeko argiaren mende egon beharra dago eta igerilekuan ere denbora dezente entrenatu behar da. Korrika egitea errazagoa da, eta emaztea eta biok oso gustura gau-

“Horrenbeste korrikalari egonda, pena da Bergaran atletismo talderik ez sortzea”

de Trintxerpekoekin. Pena da Bergaran horrenbeste korrikalari egotea eta talderik ez sortzea.

Non entrenatzen zara?

Elorrion bizi arren, Bergaran egiten dut denbora luzean, lanagatik-eta. Eta trenbide zaharrean entrenatzea asko gustatzen zait; askotan joaten naiz trenbide zaharrera, Elorrion ez dagoelako horrelako tokirik.

Kadete saskibaloit taldeen partiduak zapatu eguerdian

E.M.

Bergara KEko kadete mailako bi saskibaloit taldeek kiroldegian jokatu dute bihar, zapatua, 12:15ean. Bestalde, senior mailako taldeak Jostaldiri nagusitu zitzaion zapatuan, kiroldegian, 82-77.

Ramon Condek zuzentzen duen Bergara KEko senior taldeak partidu ona egin zuen zapatuan, eta ondo merezita irabazi zuen. Norgehiagokako azken zatian nahiko sufritu zuten mahoneroek, baina bost punturen aldearekin nagusitu ziren.

Kadete mailako taldeek ere etxean jokatu zuten aurreko jardunaldian. Alde batetik, Mikel Etxeberriaren mutilek nahiko itxura eskasa azaldu zuten Easo taldearen aurka, eta donostiarrak ez zuten inolako eragozpenik izan partidua erraz irabazteko (26-100).

Bestetik, Iker Barberoren bigarren mailako taldeak 29-51 irabazi zion Azpeitiari. Jokatu-tako lau partiduetatik hiru irabazi dituzte bergararrek. Jokalari hauek jokatu zuten zapatuan Azpeitiko kiroldegian: Asier Aizpurua (15 puntu), Julen Santamaria (8), Alvaro Arantzabal, Josu Gantxegi (1), Borja Galarraga (2), Unai Iturrospe (2), Aitor Fernández (11) eta Josu Elortza (12). Partiduko azken laurdenean sasoi betean direla azaldu zuten bergararrek, eta azpeitiarrak baino erritmo biziagoz aritu ziren. Azkenean, 22 punturen aldea lortu zuten markagailuan. Bihar, zapatua, 12:15ean, Santo Tomas Lizeoaren aurka jokatu du 2. mailako kadete taldeak Labegarietan. Garaipena beharrezkoa dute sailkapeneko bigarren postuari eusteko.

Eta, ordu berean, lehen mailako kadeteak La Salle hartuko du Labegarietako kiroldegian.

FOTOKIROLA

**Gipuzkoako Karate Txapelketan**

Joan den domekan, kadete eta gazte mailako Gipuzkoako Karate Txapelketa jokatu zen Lasarten. Shotokan taldekoak bikain aritu ziren: Miren Laskurain kumitetan lehena eta katetan 3.a izan zen, Raquel Blanco katetan nagusitu zen eta kumitetan 3.a izan genuen, eta Jon Gonzálezek kumitetan 2. postua eskuratu zuen. Era berean, Oier Tolak eta Unai Zabartek ere Euskadiko Txapelketarako sailkatzea lortu zuten. Bestalde, Dani Muñoz gerriko beltza lortu zuen, domekan, Gasteizen.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate



Zapatuan, Unanuek 22-17 irabazi zion Titin III.ari Logroñoiko Adarraga pilotalekuan.

LA RIOJA

PILOTA

Lasa III.a eta Unanue aurrez aurre Lau t'erdian bihar, Udal Pilotalekuan

Zezeagak eta Muruamendiarazek ere parte hartuko dute biharko pilota jaialdian

E.M.

Mikel Unanuek eta Oscar Lasak Lau t'erdiko Txapelketako final-laurdenetako partidua jokatu dute bihar, Udal Pilotalekuan. Jaialdiko lehenbiziko partiduan Zezeaga eta Goñi elkarrekin arituko dira.

Bergarako eta inguruko pilotazaleek goi mailako pilotariak ikusteko aukera izango dute bihar, zapatua. Aspaldian nahi baino jaialdi gutxiago izaten dira Udal Pilotalekuan. Azken jaialdia joan den irailaren 15ean izan zen, eta zaleek faltan sumatzen dute Udal Pilotalekuak lehen zeukan indarra lehen mailako partidua jasotzerako orduan.

Biharkoan jaialdi bikaina izango da, 17:00etan hasita. Lehenbiziko partiduan Goñi II.a eta Zezeaga Xalaren eta Elkororen aurka arituko dira. Goñi II.ak zeresan ugari eman zuen azaroaren 3an Esainen aurka galdu zenean, Astelenan, Lau t'erdiko Txapelketan. Zezeagaren lagun-

tzarekin aukera izango du pilotazaleen konfiantza berriz berreskuratzen hasteko. Ikusteko dago Oronozkoa sasoi onean dagoen. Atzeko koadroetan lehia polita izango da Jose Mari Zezeagaren eta Aitor Elkororen artean.

Unanue 1999ko Lau t'erdiko txapeladuna izan zen. Zapatuan, Titin III.a kanporatu zuen

Oscar Lasa txapelketako buruetako bat da, eta bihar egingo du debuta

LAU T'ERDIKO FINAL-LAUDENAK

Partidu nagusian, esan bezala, Unanuek eta Lasa III.ak elkarren aurka jokatu dute. Zortzi pilotari geratzen dira Lau t'erdiko Txapelketan, eta Unanue dugu Gipuzkoako ordezkari bakarra. Zapatuan, Titin III.a kanporatu zuen, Logroñon. Unanue 1999an txapeladuna izan zen, baina aurkari zaila izango du bihar. Lasa txapelketako buruetako bat da, iazko ekitaldian Fernando Goñi, Titin III.a eta Capellan utzi zituen eta kanpoan.

Azkenik, Badiola III.a-Laskurain eta Muruamendiaraz-Auxkin bikoteen arteko partidarekin amaituko da biharko jaialdia.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA, GAUR

Bestalde, Gipuzkoako Txapelketaren barruan Bergara KEko kadete mailako bikoteak elgetarren aurka jokatu du gaur, egubakoitza, 19:15ean. Benjamin eta alebin mailetako Gabonetako Txapelketako lau partidu ere izango dira gaur, Udal Pilotalekuan.

Senior nesken eskubaloia, lehen garaipenaren bila

E.M.

Bergara KEko senior nesken eskubaloia taldeak Askartza-EHU taldearen aurka jokatu du bihar, zapatua, kiroldegian, 18:00etan. Liga Txapelketan lehenengo partidua irabaztea da mahoneroen helburua.

Xabier Lijó eta Josu Zeziagak zuzentzen duten taldeak zorte txarra izan du orain arte. Ligan jokatuak hiru partidua galdu dituzte, etxean Elgoibarren kontra eta beste biak Bilbon, San Adrianen aurka, eta Donostian, Bera Beraren aurka. Bi goleko aldearekin bata eta beste biak gol bakar bategatik galdu dituzte. Domekan 19-18 galdu zuten, Bidebietan, Bera Beraren aurkako partiduan. Bihar, zapatua, aukera ona izan dezakete Ligako lehen garaipena eskuratzeko, baina Askartza-EHU ez da aurkari erraza izango. Partidua 18:00etan hasi-

ko da, eta zaleen laguntza erabakigarria izan daiteke etxekoek partidua aurrera ateratzeko.

Aste bukaeran beste bi partidu jokatu dira Labegarietako kiroldegian: Oihana Garmendiak zuzentzen duen kadete nesken taldeak Zarautz hartuko du bihar, zapatua, 16:30ean, eta domekan, gazte mutilen taldeak Egiaren aurka jokatu du, 12:00etan. Josetxo Muniategiren taldeak Arrateren aurka galdu zuen aurreko jardunaldian, Eibarren, 27-24.

SENIOR MUTILAK PUNTU BAKARRA

Bestalde, senior mutilen taldeak ezin izan zuen Ligan lehenengo partidua irabazi. Edu Orgazen mutilek 22-28 galdu zuten, Labegarietan, Askartza-EHU taldearen aurka. Jokatuak zazpi partiduetan puntu bakarra lortu dute, eta sei partidu galdu dituzte. Aste bukaeran Ormaiztegin jokatu dute.

FUTBOLA

Gazte mailako taldeak Agorrosinen jokatu du domekan, eta beste hiru partidu Ipintzan

Aste bukaeran lau futbol partidu jokatu dituzte Bergara KEko taldeek etxean: infantil taldeak Eibartarrak taldearen aurka jokatu du bihar, zapatua, Ipintzan, 15:30ean. Jarraian, bigarren mailako taldeak Mondra hartuko du, Ipintzan bertan, 17:15ean. Domekan, berri, lehen mailako kadeteek Tolosaren aurka jokatu dute, Ipintzan, 11:30ean. Eta arratsaldean, Euskal Ligan ari den gazte mailako taldeak Barakaldoren bisita izango du, Agorrosinen, 15:30ean. Preferente taldeak eta bigarren erregionalekoak etxetik kanpo jokatu dute, Hernanin eta Zumaian, hurrenez hurren.

LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, KANPOAN


16:00: Errotagain-Bedarreta. Artusamak
17:00: Artusamak-Cipote Nucl. A Ze Flaxa
18:00: Dedo Pafarru-A Ze Flaxa. Cipote N.

DOMEKAN, KANPOAN

16:00: Bayer-Pirulotarrak. Getokuak
17:00: Getokua-Bildurbarek. La Quinta
18:00: Pagomendi-La Quinta. Bildurbarek

DOMEKAN, BARRUAN

09:30: Cipote-Txipiron. Argandolas
10:30: Argandolas-Irubide. Txipiron
16:00: Etengabe-TNT. Canalejas
17:00: Canalejas-Mongatxu. Ganbara
18:00: Ganbara-Las p. de Sat. Torrekua
19:00: Torrekua-Agirrebeña. K.Piperrak
20:00: Aterpe-K.Piperrak. Agirrebeña



Ur-bide
ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32



Hamaika lagunek osatzen dute gaur egun Zuloagako HHIko Ispilu antzerki taldea.

Antzerki taldeak Zabalotegi aretoan egingo du emanaldia, 19:30ean

Ispilu taldeak 'Señora Ama' lana antzeztuko du bihar

MONIKA BELASTEGI

Donostian, Zuloaga auzoko Helduen Heziketa Iraunkorrek eskolaren baitan sortutako antzerki taldea da Ispilu. Duela bost urte sortu zuten, eta urte bakoitzeko antzeztan bat prestatu dute. Azkena, Jacinto Benaventeren 'Señora Ama'. Hori izango da bihar Zabalotegin.

Donostiako Zuloaga auzoan dagoen Helduen Heziketa Iraunkorrek (HHI) irakasle batek jarri zuen abian Ispilu antzerki taldea. Helburu garbiarekin sortu zen taldea: ikasleek HHIko antzerki eskolan jaso eta ikasitakoak praktikara eramatea eta jendaurrean eskaintzea, hain justu ere.

Antzerki taldea abian jarri zuen irakaslea Yolanda Guillén

bergararra da. Hura ere HHIko antzerki eskolako ikasle izan zen hiru urtez, irakasle izan aurretik, eta antzerki taldea sortzeko ideia aproposa iruditu zitzaion. Halaxe, eta Asier Serranoren laguntzarekin, Ispilu antzerki taldea eratu zuten, 1998. urtean.

Lehenengo urte hartan zortzi lagunek osatu zuten taldea, eta Yolanda Guilléne zuzendaritzapean Aristofanesen *La asamblea de las mujeres* lana jokatu zuten. Hura hasiera izan zen, eta ordutik hona, taldea handitu egin da; hamaika lagunek osatzen dute gaur egun, eta urtean behin antzeztan bat prestatzen dute.

Aristofanesen lanaren ondoren, Alfonso Sastrenen *Jenofa Juncal: la roja gitana del Monte Jaizquibele* zuten. Horri, Enrique Jardiel Poncelaren *Un marido de ida y vuelta* lanak jarraitu zion. Eta azkenekoa bihar, zapatua, Zabalotegin jokatu dute Jacinto Benaventeren *Señora Ama* da, hain zuzen ere.

SENAR-EMAZTEEN ARTEKO IKA-MIKAK

Señora Ama antzerkia Madrilgo Princesa antzokian estreinatu zuten, 1908ko otsailaren 22an. Seme-alabarik gabeko senar-emazte batzuen bizipenak kontatzen ditu. Senarrari asko gustatzen zaizkio emakumeak; hala bada ere, emazteak asko maite du, eta pozik dago, harekin egotea aukeratu duelako eta ez beste inorekin. Baina ahizpa bat ere badu, eta badaki senarrari asko gustatzen zaiola, eta inbidia dio. Horrek eta familian gertatuko den ondasun banaketa batek haserreak sorraraziko ditu.

Bandaren kontzertua domekan Santa Zezilia ospatzeko

MONIKA BELASTEGI

Hilaren 22an, Musikarien Eguna izango da, Santa Zezilia Eguna. Egun hori ospatzeko emanaldia egingo du Udala Musika Bandak, beste hainbat gauzaren artean, etzi, domeka, Udala Pilotalekuan.

Santa Zezilia azaroaren 22an den arren, domekan, hilak 17, ospatuko du Udala Musika Bandak.

Goizean goiz hasiko dira ospakizun ekitaldiak. 09:30ean, meza izango dute, San Pedro parrokian, eta horren ondoren, 10:30ean, kalejira egingo dute herrian barrena.

Ekitaldi nagusia, hau da, bandaren kontzertua, 12:30ean hasiko da, Udala Pilotalekuan, eta bost lan joko dituzte: *Euskal festara*, Jose Maria Usandizagaren euskal martxa (1908an saria jaso zuen lan horrek Eibarren jokatutako Fiestas Euskaras-en); *La gazza ladra*, G. Rossiniren ober-

tura; *A discovery fantasy*, J. de Haan konpositorearena; R. Chapíren *El tambor de granaderos*; eta, azkenik, F. Loeweren *My fair lady* musikala.

Emanaldiaren ondoren, bazkaria izango dute, 14:30ean, Azpeitxi jatetxean.


GABONETAKO KONZERTU BEREZIA

Gabonetako kontzertuak berezitasun nabarmena izango du aurtten. Ohi bezala, bi atal izango ditu, eta bigarrenak Bergarako Kirol Elkartea izango du oinarri. Hori izango da, hain zuzen, beritasuna: BKEren 50. urteurrena dela eta, urtean barrena urtemuga ospatzeko antolatu diren ekitaldiei amaiera emango zaie Gabonetako kontzertuaren bigarren atalean. Aritzeta Abesbata, Bergarako Orfeoia, Udala Musika Banda eta Orkestra Sinfonikoa elkarrekin arituko dira, ohi bezala, baina egingo duten egitarauak Gabon doinuak eta kirol musika uztartuko ditu.

LABUR

Jardunek hilaren 22rako antolatu duen bertso jaialdirako sarrerak salgai daude

Salgai daude Jardunek hilaren 22rako antolatu duen bertso jaialdirako sarrerak Lazkano zapata dendan, Jardunen bulegoan eta Korta-zar; Avenida eta Pol-Pol tabernetan. Prezioa, aurrez, lau euro da eta leihatilan, sei euro. Honako bertsolariek hartuko dute parte jaialdian: Ainhoa Agirreazaldegik, Sebastian Lizasok, Andoni Egañak, Imanol Lazkanok, Joxe Agirrek eta Jose Luis Gorrotxategik. Gai jartzaile Egoitz Aizpuru arituko da. Horrez gain, jaialdian Bergarako Egileor bertsolariari omenaldia egingo diote.



Aitor Sarasketaren erakusketa Nahikarin

Aitor Sarasketa eibartarrak margolan erakusketa du ikusgai Nahikari tabernan. Hogeita hamar akrilikok osatzen dute erakusketa, eta hilaren amaiera arte egongo da ikusgai.

Sarasketak hainbat erakusketa egin ditu, bakarka zein taldean, eta hainbat sari ere eskuratu ditu; besteak beste, Madrilgo XI. BMW Pintura Lehiaketako lehen saria, 1996an.



YOLANDA GUILLÉN ZUZENDARIA

"Joan den astean,
Goenkale-n hasteko
deitu zidaten"

Bergarakoa zara, baina Donostian bizi zara orain.

Bai, 1991n joan nintzen Donostiara, orduan senargaia zena-rekin, eta ordutik hona bizi naiz Donostian.

Nolatan hasi zinen antzerkian?

HHIn hasi nintzen antzerkiarekin harremana izaten. Antzerki eskolak ematen zituzten bertan, eta hiru urtez jardun nuen. Gero, urtebetez utzi egin nion, baina beti nuen buruan, eta jende helduarekin antzerki talde bat eratzea ideia ona iruditu zitzaidan. Eta horrela, Asier Serranorekin batera, Ispilu taldea eratu genuen.

Ordura arte antzerkiarekin inongo harremanik ez nuen, baina guztiz harrapatu ninduen.

Egiten dituzuen lanak klasikoak dira. Zergatik?

Taldeko kideak nagusiak direla hartu behar da kontuan, eta eurei ondoen egokitzen zaizkien lanak direla uste dut. Gainera, HHIko eskolatan landutako autoreak izatea ere hartzen dugu kontuan.

Ispilu taldetik kanpo ere egin duzu bestelako lanik.

Hasiberriak telesailen mediku izan nintzen bost kapitulu-tan. Eta joan den astean, *Goenkale*-tik deitu zidaten, baina oraindik ez dakit zer egingo dudana; baliteke abokatua izatea.

E, TXO!

FILM EMANALDIA
GAZTETXEAN

Astero moduan, eguazte-
nean, film bat ikusteko
aukera izango dugu
gaztetzearan. Hain zuzen,
1958. urtean Hitchcockek
zuzendutako
Vertigo filma eskainiko
digute, 22:15ean.

ASTIALDIKO ZUZENDARIEN
IKASTAROA

Hezkide Eskolak aisialdi-
ko zuzendari izateko
ikastaroa antolatu du.
Azaroaren 23an hasiko da
ikastaro hori, eta otsaila-
ren 23an amaituko da.
Zapatu goizero emango
dituzte eskolak.

Ikastaro horretan
parte hartzeko beharrez-
koa izango da begirale
titulua izatea eta 21 urte
beteta edo ikasturtean
betetzekoa izatea.

Azaroaren 18ra arte
duzue izena emateko
aukera, honako telefono
zenbaki hauekin: 943 31 14
74 edo 943 31 14 75.

LOGOTIPO LEHIAKETA

Emakumeei zuzendutako
indarkeriaren kontrako
udal planaren adierazle
izango den logotipoa
aukeratzeko, ideia
lehiaketa antolatu du
Gasteizko Udalak.

Azaroaren 25era arte
dago lanak aurkezteko
epea Gasteizko udaletxe-
an bertan. Informazio
gehiago nahi izanez gero,
honako telefono zenbaki
honetan emango dizute:
945 16 11 87.

LITERATURA
SORKUNTZARAKO BEKAK

Euskalgintza Elkarlanean
Fundazioak euskarazko
literatura sorkuntzarako
Joseba Jaka beken
deialdia egin du. Aben-
duaren 19an amaituko da
epea. Informazio gehiago
topatuko duzue
www.elkarlaneanfunda-
zioa.org webgunean.

GUREGAIK/ IKASTAROA

Kamera aurrean lan egiten ikasteko aukera

IKER BARANDIARAN


Gero eta gazte gehiago
ikusten ditugu telebistetako
kamera aurrean lanean. Eta,
agian, horrelako lan bat egitea
ametsa da batzuetarako.
Pausokak horretarako ikasta-
roa prestatu berri du.

Pausoka produkzio-etxeak kame-
ra aurreko interpretaziorako
ikastaroa antolatu du. 2002ko aza-
roaren 18tik abenduaren 20a bitar-
tean gazteak telebistan lan egite-
ko prestatuko dituzte.

KAMERA AURREAN, MODU NATURELEAN
Ikastaro horren helburua da akto-
rea kamera aurreko antzezpene-
ra egokitzea. Alor hori euskaraz

indartzeko ahalegina ere egin
nahi dute. Azken baten, Pausoka
produkzio-etxeak, batez ere, Eus-
kal Telebistarako lan egiten du.

Pausokak Donostian duen
eraikinean egingo duten ikasta-
roa, Mundaiz pasealekuko lau-
garren zenbakian, eta honako
ikasgaiak izango dituzte: drama-
tikoaren errealizazioa; kamera
aurrean mugimendu, ahoskera,
hizkera eta dramatizazioa modu
naturelean egitea; eta kamera
aurrean egin beharrekoen alde
teorikoa eta praktikoa. Irakasle-
ak, gainera, aktore ezagunak izan-
go dira. Informazio zabalagoa
jaso nahi izanez gero, 943 29 71 11
telefono zenbakian edo eskola@pausoka.com helbide elek-
tronikoan eska dezakezue.



ARTXIBOA

Kamera aurrean modu naturelean aritzea izango da ikastaroaren helburua.

LOTSABARIK/ Eztizen Bolaños

“Oso lasaia naiz, baina jenio bizia daukat”

AINTZANE IRIZAR

Musika du zaletasunik handie-
na, eta bere lanbidea izatea
ere nahiko luke. Horregatik,
musikako irakasle izateko
ikasten dihardu Bilbon. Musika
irakasle izan nahiko luke
hemendik urte batzuetara.

• Txikitik, zer izan nahi
zenuen?

Arkeologo edo albaitari; izan
ere, beti gustatu izan zait histo-
ria, baita animaliak ere.

• Hemendik 20 urtera zelan
ikusten duzu zeure burua?

Espero dut ezkontuta egotea,
seme-alabak edukitzea eta ira-
kasle lanean.

• Gurasoek zer errepikatzen
dizute behin eta berriro?

Puntuale izateko; lagunek ere
gauza bera esaten didate. Izan ere,
oso lasaia naiz, askotan, baita
lasaiegia ere.

• Gurasoen kontrolpetik ihes
egiteko taktika bat.

Egia esan, ez naiz batere kon-
trolatuta sentitzen, eta ez daukat
taktika beharrik.

• Bizitzan zeri ematen diozu
lehentasuna?

Familiari eta lagunei.

• Zure bertute bat?

Neska alaia naizela, irekia
eta atsegina.

• Eta hutsune bat?

Alde batetik, ez naizela pun-
tualia, eta, bestetik, jenio bizikoa

ere banaiz. Nahiz eta lasaia izan,
batzuetan, sekulako jenioa izaten
dut.

• Zerk amorratzen zaitu?

Nire ahizpak nire gauzetan
ibiltzeak.

• Zure gorputzeko atalik gus-
tukoena?

Begiak eta ezpainak.

• Jendeari, zeri botatzen dio-
zu begia lehenengo?

Izaerari ematen diot garran-
tzi handien; fisikoari, berriz,
eskuei eta ipurdiari.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?

Ez dut ezer egiten; ni naizen
bezalakoa naiz, eta kito.



• Fantasia sexual bat. Zeinekin
eta non?

Ez daukat fantasiarik.



ADINA: 18 urte • IKASKETAK: Musika Irakasle Ikasketak, lehen maila • ZALETASUNAK: Musika; batez ere, pianoa • KIROL TALDEA: Athletic
LIBURU BAT: 'El guardián del desierto', Gilles Lambert-ena • FILM BAT: 'Leyendas de pasión' • MUSIKA TALDEA: Denetik entzuten dut

TIRABIRAKA/ Bittor Rodríguez



ZAHARREN ETXETIK

Mizpirualde egoitzaren astea ospatuko dute
astelehenetik zapatara bitartean

EDU MENDIBIL

Datorren astean, astelehenetik zapatara bitartean, Mizpirualde egoitzaren astea ospatuko dute. Hango bizilagunei zuzendutako ekitaldiak izango dira.

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Mizpirualde egoitzaren astea ospatuko dute datorren astean. Helburua da Mizpirualdeko giroa piztea eta bizilagunen arteko harremanak sendotzea, eta, horretarako, herriko hainbat taldek euren laguntza emango dute aurten ere.

Gaur egun, 115 bizilagun dauka Mizpirualde egoitzan, eta guztiendako ekitaldiak izango dira hilaren 18tik 23ra bitartean. Astelehenean, 17:00etan, bingoa eta oparien zozketa izango dira; eta gero, 18:00etan, Musika Eskolako hari taldearen emanaldia.

Martitzenean, Arantxa Lorenzo dietistak elikadura osasungarriaren gainean jardungo du, 16:45ean, eta Musika Eskolako txistulariak giroa alaitzeaz arduratuko dira, 18:00etan.

Eguaztenean, berriz, toka eta



Mizpirualdeko astearen helburua da giroa piztea eta bizilagunen arteko harremanak sendotzea.

igela txapelketak jokatu dituzte, 17:00etan, eta Musika Eskolako trikitixa taldearen emanaldia izango da, 18:00etan. Eguenean, hilaren 21ean, briska, puntxõ,

domino eta mus txapelketak izango dira, 17:00etan. Eta egubakoitzean, hilaren 22an, Moises Azpiatzu dantza taldeak saioa eskainiko du, 17:30ean.

Ekitaldiak amaitzeko, zapatuan, hilaren 23an, Alai Taldeak lagundutako meza izango da, 11:45ean, eta gero, bazkaria eta Xamatx dantza taldearen saioa.

LABUR

San Joxepetik
antolatutako
irteera hilaren 26an

San Joxepetik erretiratuen elkar-
teak irteera antolatu du aza-
roaren 26rako (martitzena).
Iruñea, Olite, Tafalla eta Liza-
rra bisitatuko dituzte. Olite-
ko gazteluan bisitaldi gida-
tua egiteko aukera izango da,
eta bazkaria Lizarrako Iratxe
hotelean egingo dute. Bazka-
lostean dantzaldia izango da.
Izenematea San Joxepetik ber-
tan egin daiteke. Argibideak,
943 76 30 09 telefonoan.

Informatika
ikastaroak
San Joxepetik

Ordenagailu bidezko Marraketa
ikastaroa, Word sakon-
tze ikastaroa eta irudiak eska-
neatzeko tekniken ikastaroa
izango dira San Joxepetik
Informatika Gelan, azaroaren
20tik abenduaren erdialdera
bitartean. Hiru ikastaro
horiek hamasei ordukoak
izango dira. Bestalde, Infor-
matika Gelako ordenagailuak
erabiltzeko San Joxepetik
Harrera Gelan izena eman
beharra dago.



AUDIFONOAREN HAMABOSTALDIA

Azaroaren 15etik 30era

Orain, ondo entzutea
merke irtengo zaizu.

MULTIOPTICAS

LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75

BERGARA

AUDIFONOAK

350€-tik
aurrera

Laguntzailea:



GAES

ENTZUMEN ZENTROAK

KONPROMISORIK GABEKO audiologia-azterketa bategatik balio du.

Erosoagoa izan dadin, aldezturik deitu ordua zehazteko 943 76 15 75 zenbakira

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Ze egun ospatzen dute Osintxun azaroaren 18an?

GALDEDEBALDE

1.

Zein da Bergarako UNED ikastetxeko zuzendaria gaur egun?

- A/ Juan Jose Álvarez.
- B/ Vicente Huizi.
- C/ Jesus Arpal.

2.

Ispilu taldeak *Señora Ama* antzetzuko du Bergaran. Zein da antzezlanaren egilea?

- A/ Buero Vallejo.
- B/ Jacinto Benavente.
- C/ Jardiel Poncela.

3.

Zein urtetan irabazi zuen Mikel Unanuek lau t'erdiko pilota txapelketa?

- A/ 2001ean.
- B/ 1998an.
- C/ 1999an.

PINTORE BERGARARRAK GAUR

Josu Okina

EDU MENDIBIL


Azaroaren 22ra arte ikusgai dago Josu Okinaren (Bergara, 1955) margolan erakusketa Azpeitiko Antxieta etxean. Azkenaldian egindako 30 lan zintzilikatu ditu han, eta errealismoaren barruan kokatzen dira: "Paisaiak eta natura hilak egiten ditut, nagusiki, eta erretratua, berriz, ez dut horrenbeste landu orain arte. Margolanean atmosfera neureganatzea da gehien interesatzen zaidana; horren atzetik ibiltzen naiz. Bestalde, elementu gutxirekin ahalik eta gehien esaten ahalegintzen naiz. Detaile gutxirekin bada, hobeto".

Txikitatik artearekiko zaletasuna hartu zuen etxean, Jesus, aita, tailagilea eta Bergarako Arte eta Lanbide Eskolako marrazketa irakaslea zen-eta. Simon Arrietak, Fernando Azkargortak eta Miguel osabak gidatzen zuten Zabalotegiko Udal Akademian ere ibilitakoa da, Gaur egun, hiruzpalau orduz margozten du egunero, Miguel osabarekin duen estudioan: "Nire izatearekin zerikusi handia dauka pinturak, nire izatea formatu du zelanbait; gozatu egiten dut pintatzen. Eta etengabe ikasten da margotzen arituta".

"Atmosfera neureganatzea interesatzen zait; horren atzetik ibiltzen naiz"



E.M.



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ANE LASKURAIN endako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Ane!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Danok Ba** / Galde debalde: **1-C, 2-C, 3-A.**



Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Torrealdea ardoa

Errioxako ardo beltza, tempranilloa

1,59 €

265 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ARDATZA
Brikolajea

Ateak eta zokaloak
Horma-armairuak
Sarrailak
Heldulekuak

Koadroak markoan ipini
Era guztietako moldurak
Apalak
Kaxoiak

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93



gizon & emakume

Barrenkalea 35
BERGARA



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



BERGARA
Alazne Mujika
Azaroaren 20an urtebete.
Zorionak! Etxekoak,
lagunak eta, bereziki, Ane.



BERGARA
Maitane Juaristi
Azaroaren 20an 5 urte.
Zorionak zuri eta aitari!
Etxekoak.



BERGARA
Irati Olabarria
Azaroaren 15ean
urtebete.
Zorionak! Etxekoak.



BERGARA
Josu Diaz
Azaroaren 17an 8 urte.
Zorionak! Mariñe, Ibon,
Alatz eta etxeokak.



BERGARA
Mariñe Diaz
Azaroaren 17an 4 urte.
Urte askotarako! Jon,
Ibon, Alatz eta etxeokak.



BERGARA
Sara Mancho
Azaroaren 20an 5 urte.
Zorionak! Gurasoak,
Ruth eta lagunak.



BERGARA
Amaia Galarraga
Azaroaren 12an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Leire Guridi
Azaroaren 15ean
urtebetez. Zorionak
potxola! Auskalo nor.



ANTZUOLA
Endika Mata
Azaroaren 21ean 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



ANTZUOLA
Amaia Zabaleta
Azaroaren 23an 27 urte.
Urte askotarako!
Paki Gomez.



BERGARA
Xabi Beistegi
Azaroaren 15ean 16
urte. Urte askotarako!
Koadrilakoak; batez ere...

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia,
Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia,
astelehenetan 17:00etatik
19:00etara
Elgeta: Erosie-Baltxongua



BERGARA
Martin Telleria
Azaroaren 17an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Maria Jesus Irazola
Azaroaren 18an
urtebetez. Zorionak!
Maddi, Gorka eta Xabat.



BERGARA
Isabel Igartua
Azaroaren 19an urteak.
Zorionak! Etxekoak,
Gorka eta Xabat.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaiozu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. / Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. / Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, BERRIGARAn agertu ondoren. / Argazkia, urtebetez eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

ARANE KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel. 943 76 74 09
670 483 903

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68



ARRI

Industri
hornidura

Zubiaurre, 30
BERGARA
Tf. eta faxa:
943 76 19 04.
Sakelakoa:
656 78 64 84.

TOKI-ONA Bodegoia-taberna


Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel. 943 76 39 53

Jose M. Martin


pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295



JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95



AITOR SARASKETA

PINTURA
ERAKUSKETA
NAHIKARI taberna.
Masterreka 20. Bergara.
Tel. 943 76 57 71

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman) Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, sakelakoa: 607 48 71 19

BALDANA Koldo Elizalde 28. 943 76 27 97, sakelakoa: 630 764 545

ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13

ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala) 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13

IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA Isabel Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN Victor Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23

ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95

BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77

GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88

GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54

IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65

TRIPALDI Enrike Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

ERREHABILITAZIO FISIKOA

LOPEZ DE MUNAIN Francisco J. Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

ARZAK Miren (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

BASTERRETXE, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

HOMEOPATA

GANUZA Susana Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

AZPEITIA Irune Ibargarai 44, behe. 943 76 73 43

CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78

ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

BENITO Isabel Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

OXIRONDO KONTSULTATEGIA Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50

PODOLOGOAK

ALTUBE Edurne Simon Arrieta 2. 943 76 07 84

AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

GALLASTEGI Pablo San Martin Plaza 2, 1-ekz. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatría, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80

URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13

ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

SAMADHI YOGA Masterreka 13, behe. 943 76 11 38, sakelakoa: 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko azaroaren 15a / 134. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxe: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Maristena izandako eraikina eraistea erabaki du Udalak osoko bilkuran

AINTZANE IRIZAR

Aurreko astean egindako osoko bilkuran maristena izandako eraikina botatzea erabaki zuen udalbatzarrak. Izan ere, eraikinaren egitura txarto dago. Hamar bat hilabete pasatu dira dagoeneko eraikineko lanak geldiarazi zituztenetik.

Prozesu luzea izan zen gizarte etxea izango zen eraikinaren gainekoa. Eraikinean zehazki zer egin nahi zen erabaki, proiektua esleitu eta onartu, lanak esleitu...

Aurrekusten zuten eraikinaren egituraren arazoak egon zitezkeela, baina lanekin hasi bezain laster, arazo horiek uste baino larriagoak zirela ikusi zuten. Alde batetik, gerra ostean, eraiki zenean, material eskas samarrak erabiltzen zituztelako; eta, bestetik, urte hauetan guztietan egin diren berrikuntza lanetan kalteak eragin zaizkiolako egiturari. Lanak bertan behera laga zituztenetik hona hamar hilabete pasatu dira.

PROPOSAMEN UGARI AUKERAN

Eraikinaren etorkizuna erabakitzea ez da lan erraza izan. Mireia Unamuno alkatearen esanetan, "ondo pentsatutako erabakia izan da, azkenean, eraikina eraistea". Erabaki hori hartu aurretik txosten tekniko ugari egin dituzte, iritzi, txosten eta aurrekontu ugari kontrastatu behar izan dituzte.

Udalarendako, eraikina ez botatzea garrantzitsua zen, eraikinak baduelako historia.



Azkeneko hamar hilabeteotan geldi egon dira eraikineko lanak.

Eraikinaren egitura egoera txarrean zegoela ohartu ziren lanekin hasi orduko

Aukera ugari erabili dituzte esku artean: eraikinaren egitura sendotzea, kanpandorra dagoen aldea dagoenetan laga eta gainerakoa botatzea... Azkenean, eraikin osoa eraitsi eta berria

Eraikina ez botatzea zen garrantzitsua Antzuolako Udalarendako

egitea erabaki du Udalak. Hala ere, oraindik ez dute erabaki zelaiko eraikina egingo duten.

Orain, prozesu osoa hasieratik hasi beharko dute: proiektua esleitzeko deialdia egin eta proiektu

Urte hasierarako eraikina eraistea espero dute Udaleko arduradunek

tu hori onartu, lanak esleitu... Eraikina eraisteko proiektua egingo du orain Udalak; gero, lanak enpresa bati esleitu ditzio, eta urte hasierarako eraikina eraistea espero dute.

LABUR

Bihar, zapatua, ipuin kontalaria liburutegian

Udal Liburutegiak antolatuta, Arrate Leunda ipuin kontalaria izango dugu bihar, zapatua, liburutegian bertan. Arratsaldeko seietan hasiko da saioa, eta era guztietako ipuinak entzuteko aukera izango dugu. Liburutegiak aurten antolatzen duen bigarren saioa izango da biharkoa.

Bihar, zapatua, zozkatuko dituzte etxebizitzak

Antzuola Udal Etxegintzako etxebizitzak erosten behin betiko zerrenda onartu ostean, bihar, zapatua, eguerdiko hamabietan egingo dute etxebizitzak zozketa, Olaran etxean. Dauden hamasei etxebizitzak hamasei erosleren artean banatzeko egingo dute zozketa hori.

Aiherrarako autobusa 08:00etan irtengo da

Etzi, domeka, ospatuko dute Aiherraren eta Antzuolaren arteko Elkartasun Eguna. 08:00etan irtengo da autobusa, plazatik. Nafarroa Behereko Baigorri, Banka, Aldude eta Urepele herriak bisitatze-ko irteera antolatu dute egun horretarako Aiherrakoek.



INDUSTRI MANTENIMENDUA

Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxe:
943 76 60 19

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorak eta oilaskoak

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

AITZ-GARBI



Pintxoak eta kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA



Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak
Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA.
Tf. 943 76 60 89

IRAKURLIAREN TXOKUA

ESKOLA KIROLA

Eskola kirolak ez du orrialde asko betetzen egunkarietan baina hor jarraitzen du urtero zenbait ekitaldi aurrera ateratzen. 8-14 urte bitarteko gaztetxoak, guraso talde bat eta irakasle bat ere ibiltzen dira eurei erakusten eta eurengandik ikasten.

Nire ustez, aipamen txiki bat merezi dute aurten eta urteetan zehar entrenatzaile lanetan saiatzen direnek, nolabait euren esperientzia, pazientzia eta batez ere gogoarekin kirolzaletasuna eta lagunartea sortzen ahalegintzen direlako.

Eginak baditu bere arriskuak eta gauzak beti ez dira ondo irteten, baina beste denok eman diezaiegun gure iritzia eta laguntza, eta horrela, denon artean, samurragoa izango da helburua lortzea.


Antzuolan, orain arte, Eskola Kirolak badu jarraipena beste zenbait kirol taldetan, gaur egun batez ere pilotan eta futbolean; eta hauetan, beste askoren tartean, aipatu beharra daukat orain dela gutxi joan zaigun Alfonso Castro.

Idatzi honekin berari omenaldi txiki bat egitea nahi nioke.

Fragua ondoan ezagutu zintudan, burdina lantzen bazenuen trebezia, baina batez ere zure lanerako jarrera eta ingurukoengan sortzen zenuen bizipoza azpimarratuko nituzke. Antzuolako gazte askok eta kirolaz gozatu dugun familiak badugu erreferentzi on bat zurekin; zure jaioteritik urruti, baina "azentua" galdu gabe, makina bat lan egin duzu ordainik eskatu gabe; orain, berri, bidai luzean joan zara lagun.

Eskerrik asko eta gero arte Alfonso.

JOSE MARI ITURBE



Antzuolar ugari Behobia-Donostian

Guztira, hamabost antzuolarrek parte hartu zuten Behobia-Donostia lasterketan. Ordubete, zortzi minutu eta zazpi segundoko denborarekin Beñat Aiastui korrikalaria izan zen denbora onena egin zuen antzuolarra. Iker Larrea (01:12:26) eta Aitor Larrea (01:17:18) izan ziren hurrengoak. Aipatzekoa da, bestalde, emakumezko bakarra joan zela Antzuolatik; Olatz Lezetak bi ordu, hemeretzi minutu eta segundo bat behar izan zituen 21 kilometroak egiteko./A.I.

LABUR

Inkesten arabera, gurasoek beharrezkoa ikusten dute umeak zaintzeko zerbitzua

Pausoka gurasoen elkarteak haurtzaindegi edo zaintza zerbitzuaren gaineko herriko guraso guztien iritzia jakin nahi izan du. Horretarako, 0 eta 3 urte bitarteko umeak dituzten 60 bat gurasoren artean inkesta egin du azkeneko hilabeteetan. Inkestako emaitzen arabera; denek ikusten dute beharrezkoa haurtzaindegia edo zaintza zerbitzua jartzea herrian, eta gehienek erabiliko lituzkete, gainera, zerbitzu horiek.

Herriko hilerria hamabostean behin zabaltzen dute, domeketan

Herritar askok ez ei dakite noiz egoten den zabalik hilerria. Hori adierazi zuen Juan Benítez zinegotziak azkeneko osoko bilkuran. Udalean adierazi digutenez, hamabostean behin egoten da zabalik hilerria, domeketan, 11:00etatik iluntzera arte. Etzi, esaterako, itxita egongo da. Dena dela, udaletxean eskuragarri dago hilerriko giltza, edozein egunetan hilerriara joan nahi duenarendako.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Oraingo aste bukaeran ez dugu futbol partidurik izango Estalan.

PILOTA

Azaroak 16 (Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketa)
18:00: Olalde-Oskarbi (inf. eskuz)
Ondoren: Olalde-Landare (nag. palaz)

EMAITZAK

FUTBOLA

Antzuola 3 Aretxabaleta 5 (Erreg.)
Antzuola 7 Ondarroa 0 (Gazteak)

PILOTA

Gipuzkoako Kluben Arteko Txap.
Olalde-Azkoitia (eskuz inf.) 22-0
Olalde-Lagunak (eskuz gazteak) . . . 1-22
Olalde-Azpeitia (eskuz nag.) 22-0
Behar Zana-Olalde (palaz nag.) . 11-35

ATREBENTZIAEZPADA/ Herriko zine emanaldixetara juten zara?



AITOR LASKURAIN
10 urte

Ez, ez naiz juten, ez herriko emanaldixetara, ezta kanpora be. Gustatzen jat pelikulak ikustia, eta igual noizbait jungo naiz herriko emanaldira.




MIKEL LIZARAZU
10 urte

Bai, lagunekin eta anaiakin juten naiz, eta gustatzen jat ekartzen dittuen pelikulak. Gehixenbat, barre egittekuak gustatzen jat.



IRATXE AIASTUI
10 urte

Bai, ahal dotenian juten naiz. Jun zan astian bota zebena, *Harry Potter*, asko gustau jaten, baiña pelikula berrixaguak ekarri biharko leukie.



LIDE TOLEDO
10 urte

Bai, eguraldi txarra egitten dabengan juten naiz. Gustatzen jat ekartzen dittuenak be, baiña pelikula berrixaguak ekarri biharko leukie.



JURDANA PILDAIN
10 urte

Bai, ahal dotenian juten naiz, batez be, eguraldi txarra egitten dabengan; ona egitten dabengan, kalian gelditzen naiz, lagunekin.

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Juan Cruz

ARGAZKIAK

Ezkontza erreportaiak
Jauantze erreportaiak
Momentuko argazkiak

BITXITEGIA

Marrokeneria
Erlojuak, Bitxiak
Opari gaiak

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko azaroaren 15a / 118. zenbakia


KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: S5475/95

Baimen ofizial barik gas-instalazioak aztertzen

OXEL EROSTARBE

Eusko Jaurlaritzaren balio ofizialik ez duen arren, Bilboko enpresa bat gas-instalazioak aztertzen ari da gure ibarrean. Elgetako zenbait etxetan ere egin dute iruzurra. Inongo balio ofizialik ez duen azterketa egiteagatik 60 euro kobratu dute gure herrian.

Elgetako Udalean esan digutenez, herritarrok kontuz ibiltzea komeni da. Teknikariaren bat azterketa egitera datorrenean, identifikazio ofiziala eskatu behar diogu, eta hura erakutsi bitartean ez da komeni inolako agiririk sinatzea. Izan ere, iruzurgileek sinatzeko eskatuko diguten agiriak eskumena ematen diezaioke gure gas-instalazioa aztertzeko. Bost urtean behin legeak gas-instalazioen azterketa egitera derrigortzen gaitu, eta horretara datozela esaten dute iruzurra egin aurretik. Teknikariari ziurtagiri ofiziala eskatzea komeni da, ezertan hasi aurretik. Debagoienan baimen barik azterketak egiten diharduen enpresa Bilboko da. Bizkaian dago erroldatuta, Sergas izenarekin.




Gas-instalazioa begiratzera datozela esaten dute iruzurra egin aurretik.

ELGETAN ERE EGIN DUTE IRUZURRA

Bilboko enpresak Elgetan ere egin du iruzurra. Udalean salaketa bakarra jaso duten arren, beste etxe batzuetan ere egin dute-

la uste du Udalak. Inongo balio ofizialik ez duen azterketa egitearren 60 euro ordaindu zuen herritar batek. Aurrerantzean argi ibili beharko dugu teknikariekin.



Euskadiko Bolo Txapelketako finalak Elgetan

Santa Eufemian, San Andresen eta Iruzubietan jokatu ostian, bixar, zapatua, Euskadiko Bolo Txapelketako finalak jokatu dira Elgetan. Aurtengo txapelketari gure herriko kiroldegiko bolatokixan emongo dotse amaieria.

Txapelketa irabazteko faboritua zein dan ez dago bat-be argi. Arratsaldeko bostetan hasiko dira finalak, eta bertan onena zein dan ikusi bihar. Bolatokixa gertu egongo da. Txirluak zeinek jotzen dittuan ikusi bihar./O.E.

AURREKONTUAK

Urtea amaitu aurretik onartu nahi dituzte

O.E.

Azken urteetan maiatza izan da aurrekontuak onartzeko garaia Elgetako Udalean. Aurten ordea, urtea amaitu aurretik aurrekontuak onartzea nahi dute udal ordezkariak. Halaxe azaldu zuen Udaleko azken osoko bilkuran Patxi Basauri alkateak. Batzorde bakoitzeko ardura daukaten zinegotzietan, lehenbailehen bertako aurrekontua aztertzen joateko eskatu zien alkateak.

Azaroaren 18rako batzorde bakoitzak aurreikusten dituen ezohizko gastuak jakinarazi behar ditu, aurrekontuak aztertzerakoan kontuan hartzeko. Dagoeneko zenbait batzordetan, baserriarrenean eta kirolenean adibidez, aztertua zegoen gaia

eta gainontzekoetan aste honetan bertan aztertu dute. Kultura batzordean, datorren urteko jaientan izango den danborrada handia da proposatu duten ezohizko gastuetako bat. Bestea Espaloian inbertitzea litzake, Kafe Antzokiaren proiektua aurrera eramane edo bestela, aretoa argi eta soinuarekin egokitzeko.

Alkateak adierazi digunez, datorren urteko aurrekontuei begira, Espaloia aretoa eta Balioanizdun Herri Zentroa egokitzeko lanak aurrera eramatea izango dira aurreikusten dituzten inbertsio nagusiak. Batzordetako proposamenak jaso ostean, hile bukaerarako aurrekontu proposamena egingo die zinegotzietan. Aurrekontuak, osoko bilkuran aztertuko dira abendu bukaeran.

LABUR

Gaixo eta adineko pertsonak zaintzen dituztenendako ikastaroa antolatu guran

Adineko pertsonak edo gaixoak dituzten senideei zuzendutako ikastaroa antolatu nahi du Ongizate Zerbitzuak. Taldea osatzeko, beharrezkoa da lehenbailehen jakitea zenbat lagunek duten interesa ikastaroan parte hartzeko. Parte hartzaile kopuruarekin zehaztuko dute gero ikastaroen ordutegia. Interesa dutenek edo zalaizaren bat argitu nahi dutenek gizarte laguntzailearengana jo behar dute azaroaren 20a, eguaztena, baino lehen.

Felipe Uriarteren diapositiba emanaldia izango da datorren egunean

Datorren egunean, azaroaren 21ean, *Hiru Handiak* diapositiba emanaldia izango da kultura etxean, 19:30ean. Hantxe izango da Felipe Uriarte, Hiru Handiak espedizioan parte hartu zuen mendizale ezaguna. Hainbat espediziotan parte hartu du Uriartek. Elgetan egingo duen diapositiba emanaldian, Hegoamerikako hiru ton-tor nagusien, Ojos del Salado, Pissis eta Aconcaguaren berri eman-go du euskal mendizale ezagunak.

Usoak kendu edo ez erabakitzeak herritarren iritzia jasotzen dihardu Udalak

Usoak eragiten duten zikinkeria dela eta kexa ugari jaso ondoren, usoak kendu edo ez erabakiko du Udalak urtea amaitu aurretik. Erabakia hartu aurretik, ordea, herritarrok gai horren gainean daukagun iritzia jaso nahi dute. Gure iritzia Udalaren webgunean edo udaletxeko Idazkaritzan eman dezakegu.

JARDUNABALKOITTIK



Oxel Erostarbe

Gasto zero entzun da

Gutxi gastau eta bueltak amari! Eta urtero moduan, bueltak barik, zorrak ugari! Ez da giro izango gure plazako etxian, urtia bukatzeko bi hillabeten faltan, eta tekninarixak mahai azpizetan zentimo billa. Ez dago dirurik! Teknikarixak bai, ugari! Gastatzeko dirurik ez eta bi hillabetian lanik ezin egin, oporretan. Proposamen bat, teknikari bakoitzak bere soldatian herena diru laguntzetatik lortu ezkerro...

Etxe barruan diru gutxi eta plazan, zortzi biharrian zazpi! Zerratu eta kitto! Pagua behera! Ustelduta zeuala esateko modu rebindikatiua. Arrazoia, norberana hartu eta kitto! Otsaillian aldatzia pentsaureta zeukela irakurtzia ez jakue bape gustau. Etorriko da otsailla. Ni be, landatu zain egongo naiz. Bittartian arrazoia zuek. Udala, beste batzutan ez moduan bandorik atara barik. Pisu kontua izango da...

Udalan banduak eta notiziak, interneteko www.elgeta.net helbidian topauko dittugu aurrerantzian. Norberan helbidian, notiziak jasotzeko aukera eta guzti. Komisaldegixetan moduan, plenotan be, webcam bat ipiñiko neuke, herritarrok han zer gertatzen dan ikusi daigun.

ELKARRIZKETA

IZASKUN ANUNTZIBAI/ELGETAKO KZGUNEKO ARDURADUNA

“Lotsak alde batera utzi eta mundu hau ezagutzera animatu nahi nuke jendea”

O.E.

Astlehenean zabaldu zuten Elgetako KZGunea. Dagoeneko zortzi lagun hasi dira ikastaroak jasotzen, eta abendurako ere jende dezente eman du izena. KZGuneako arduradun Izaskun Anuntzibairekin izan gara.

Lehenengo eguna; zer moduko harrera izan du KZGuneak?

Harrera ona izan duela esango nuke. Jende ugari etorri da informazioa eskatzera, eta ikastaroetan ere jende dezente eman du izena. Lehenengo taldeak astlehenean hasi zuen ikastaroa; gehienek bazeukaten informatikarekin harremana, eta azkar goaz. Ikastaroan oinarrikoen hasten gara, eta ez dago ordenagailuez ezer jakin beharrik. Poliki-poliki hainbat gai landuko ditugu, ordenagailua zelan pizten denetik, Interneten nabigatzen ikasteraino.



O.E.

Zer egin behar da ikastarotant parte hartzeko?

Norberari gehien komenizaion ordutegia zehazteko, KZGunean etorri behar da eta

izenemate orria bete besterik ez da egin behar. Dena dela, lotsak alde batera uztera eta mundu hau ezagutzera animatu nahi nuke jendea.

KIROLA

Estampak hartu du bere bidea

O.E.

Aurreko zapatuan, denboraldi-ko lehenengo partidua irabazi zuen Estampaciones Intxortak, Maixa tabernaren aurka. Estampakoek 59-38 irabazi zuten partidua. Hasiara-hasieratik nagusi izan ziren markagailuan elgetarrak, eta aurreneko minutuetan lortutako errentari eutsi zioten, amaiera arte. Taldea sasoi puntu onean dagoela esan dezakegu; aurrerantzean zer-nolako erantzuna ematen duten ikusi behar-ko dugu.

Hurrengo partidua etzi, domeka, jokatuko dute Estampakoek; 10:30ean izango da, Eibarko Celtics taldearen aurka.



O.E.

Aurtengo denboraldian ere Liga eta Kopa irabaztea da Estampakoen helburua.

IRAKURLIAREN TXOKUA

EAJ-REN HITZAK ETA EKINTZAK

Azaroaren 8ko GOIBEKOKALEn Zubiaurre Jaunak idazten zuen ezin garelako Garzonen probokazioetan erori, ezta falangisten aurrean protestatu ere. Orduan zein da bidea, EAJrena, Garzonen autoak zintzo betez? Euskal herritar gehienak lege hauen aurka gaude, baita paskongadako legebiltzarren gehiengo ere. Zergatik egin uko gehiengo honi, espainol legea betez?

Autodeterminazioari buruz: ez da abertzaleon helburu estrategikoa, eskubidea baizik. Nazioarteko legediak onartua. Herri bezala eskubide hori dagokigu. Lurraldetasuna bai da abertzaleon proiektu estrategikoa 6 herrialdeentzako eskubideak lortzea.

Ibarretxeren proiektu baskongadoak, non uzten du Euskal Herria? Euskaldunon askatasuna lortzea, giza eskubideak, elkarbizitza eta demokrazia errespetatuz, zeruko aingeruetan sinestea bezala da. Hori ez dute Estatuek inoiz bete 1200 eta 1521eko konkistetatik gaur egun arte.

Euskal Herrian gatazka politiko bat dago eta biolentzia alde guztiek erabiltzen dute: ETak, Guardia Zibilak eta Ertzaintzak. Galdetu bestela Bizkai aldeko azken atxilotuei. Biolentziaren aurka bagaude, espresio guztien desagerpenaren alde egin behar-ko genuke, horretarako prozesu demokratiko bat abian jarritz. Herri honetako biztanleek etorkizuna erabakitze-ko eskubidea dutela onartzeak ekarriko du benetako bakea.

SEBAS ARANZABAL

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea •
- Reflexologia •
- Hidromasajea •
- Kirol masajea •



- Solariuma •
- Drenaje linfatikoa •
- Algekin eginiko estalkia •

Dei ezazu **646 50 00 29** telefonora ordua eskatzeko

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g. Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

BOLATOKI

Taberna

Eguneko menua

Asteburuan menu bereziak, ospakizunak eta agur-afariak

Karta enkarguz

Artakale 2, ELGETA. 943 76 82 84

ERRETRATUZAHARRA

ELGETA

Azkoittiko Euskal Jaira
juan ziranekua

Euskal Herrixan egin zan lehenengotako Euskal Jaixa Azkoittian izan zan. Elgetatik jente ugari jua ei zan hara jaira, eta hau neska kuadrilliau da horren lekuko. Azkoittiko plazan dago etarata hau erretratuau.

Batzuk amonatxo jantzitta jua ziran; Ozkarbiko dantza taldea sortzeka zeguan ondio-

kan, eta bakoitzak bere kontura lortu ei zittuan jantzixok. Erretratuan ikusten dogun moduan, edarto atonduta eta orraztuta jua ziran, eta ligau zebeik be egon ei zan. Honek agertzen dira erretratuan:

Goiko illaran, ezkerretik eskumara: Mari Karmen Elorriaga, Elena Arantzeta, Libe Telleria eta Mertxe Mendikute.

Erdiko illaran, ezkerretik eskumara: Maite Zabala, Antoni Telleria, Juanita Sarasketa eta Eugenia Zubiare.

Beheko illaran, ezkerretik eskumara: Mariasun Agirre, Maribi Irazabal, Mari Ester Telleria eta Mertxe Elorriaga.

Urtea: 1962



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

ELGETA


San Roke
kalian gora

Eibar eta Arrasateko bidera lotuta jua da haunditzen Elgeta. Gaurko erretratuan Erdi Arotik gorde dan herriko kale bakarria ekarri dotsuegu. Lehenago herrixa babesten zeuan harresixaren aztarnak bertan ei dare. Azken urtiotan barritzen doa kalia. Oiñezkuendako egokittu dan kale bakarria da, eta zahartuta geratu diran etxiak barritu egin dittue, lehenago egitturiari eutsitta.



≈ 1970

San Roke kalia espalo i eta guzti ikusi geinke. Etxe gehixenak barrizteka dare, eta kaleko zorua be ez da gaur egunekuaren modukua.



2002

Kaleko etxe gehixenak barritu egin dittue. Batzuek pisu bat gehixago dakela be konturatu geinke. Zoruan galtzadarririk dare.



Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

OGIZUN
koop. elk.
okindegia




San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

Hartu aterkina

Azaroan, Agirre jantzi dendan egindako erosketek **oparia** daukate: aterkina.
Zatoz Bidekurutzeta 18ra!



Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



**HORMA-
ARMAIRU
AUKERA
ZABALA**

Eta mota
guztietako
ateak.
Informa zaitez!



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

**Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa**




**AZKARATE
AROTEGIA**

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 88 40 20

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA





Guipuzcoana Euro Express: Nazio eta Europa mailako paketeria garraioa

San Juan Erreka z/g Elgeta bidea. Bergara - Tel. 943 763 642 - Faxe 943 765 425

